

## **Zenbakiekin jolasean. Piezen letrak**

### **Jolasak eskuekin**

#### **Hiru bostak hamabost dira**

Hiru bostak hamabost dira,  
hamabostean kontuan gerade,  
nahi al duzu jokatu pinta,  
hamabost direla!

#### **Txoriak pio, pio, pio**

Txoriak pio, pio, pio.  
Errotak kan, kan, kan!

### **Kantak**

#### **Bat, bi, hiru, lau**

Bat, bi, hiru, lau,  
bost, sei, zazpi, zortzi,  
bederatzi, hamar, hamaika, hamabi.  
Hamabi.  
Hamahiru, hamalau, hamabost, hamasei,  
hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi, hogei.

#### **Bat, Martin Tarrat**

Bat, Martin tarrat.  
Bi, Martin ipurdi.  
Hiru, etxea bete diru.  
Lau, katuak jango al hau!  
Bost, krisk eta krosk.

Sei, neska mutilen zain.

Zazpi, etxea bete zapi.

Zortzi, etxea bete zorri.

Bederatzi, etxea bete azti.

Hamar, katua mar-mar.

Hamaika, zakurraren ipurdi!

***Ez dut ikusi santa sekula***

Ez dut ikusi santa sekula

arkakusoa dantzatzen,

arkakusoa dantzatzen eta

zorria barrez itotzen;

zorria barrez itotzen eta

zimitza gitarra jotzen;

zimitza gitarra jotzen eta

bartza bertsoak kantatzen.

***Bost txerri banituen***

Bost txerri banituen,

bostak ordotsak.

Bost txerri banituen,

bostak ordotsak.

Bostak mutur luzeak,

ipurdi zorrotzak.

Ai, ai, ai! Ipurdi zorrotzak!

## **Zotz egiteko**

### ***Kia-kia mendirat***

Kia-kia mendirat, oiloa oilategirat, andre ederra Tolosera, idi ederra eroatera.

## **Ipuinak**

### ***Inurria eta kilkerra***

Inurria, uda guztietan bezala, lanean zebilen, janari bila, etxea apaintzen... lanean gogor. Eta bitartean, kilkerra hosto batean botata eguzkitan gustura denbora pasatzen. “Ja, ja, ja!” -barre egiten zion inurriari- “A! Ze ari zara lanean? Eguzkitan egon beharko zenuke, nik bezala, ondo pasatzen”.

Inurriak lanean jarraitzen zuen etengabe eta, negua iritsi zenean, kilkerra izoztuta geratu zen. “Aaaai!”. Elurretan, inurriaren leihatilara, leihora hurbildu zen. Inurriak leihoa zabaldu eta galdetu zion:

- Udan ze ibili haiz?

Eta kilkerrak:

- Udan? Udan kantari.

Eta inurriak erran zion:

- Ba orain dantza hadi!

### ***Azeria eta belea***

Aspaldi-aspaldian, animaliek solas egiten zuten garaian, azeriari eta beleari gertatutakoa kontatuko dizut. Azeria mendian dabil, gosetua, eta sumatu du gazta usaina. Momentu horretan hasi da pentsatzen: “Hau? Egia ote da? Gazta usain hau?”. Usainari jarraituz, belea ikusi du arbola baten gainean gazta puska bat ahoan duela. Orduan hasi da pentsatzen engainatzeko modu bat bilatu behar duela gazta puska hori lortzeko. Engainatzeko asmoz, hasi zaio bere lumen edertasuna-eta goraiatzeko:

- Egun on, bele andrea! Atsedean hartzen?

Beleak ez dio erantzun, ez baitu gazta erortzerik nahi, eta azeriak lausenguekin jarraitu du:

- Gaur eder-ederra zaude, luma ilun eta distiratsu horiekin. Ezin ederrago! Lastima mutua zarela. Begira nik zeinen ongi kantatzen dudana: “Bost txerri banituen,

bostak ordotsak. Bost txerri banituen, bostak ordotsak. Bostak mutur luzeak, ipurdi zorrotzak. Ai, ai, ai! Ipurdi zorrotzak”. Bueno, bueno, banoa. Ikusi arte!

Belea, bitartean, pentsatzen ari zen: “Nik? Ez dakidala kantatzen? Ai, aditzen didazunean!”. Bazekien polita zela eta distiratsu zegoela. Azeria alde egiten ari bazen ere, belarriak aski tente eta adi zituen belearen aldera. Eta bat-batean, “kunk!” sumatu, zeharka begiratu eta ikusi zuen belearen mokoak gaztarik gabe! Fiun-fiun! Ziztu bizian joan zen eta gazta harrapatu zuen. Belea kantari hasi zen, baina zer gertatu zen ikusi zuenean? Orduan, bai, orduan amorratuta mutu gelditu zen.